

“Bilduko udal taldeak Udal honetako Osoko Bilkurak bere egin dezan

honoko mozioa aurkezten du:

Udalon helburu nagusietako bat herritarren ongizatea zaintzea da, eta Oñatiko udala, zerbitzu publikoa den aldetik, herritarron bizi kalitatea zaindu nahi du, zalantzarik gabe.

Hau honela, eta hiri hondakinei lotzen bagatzaizkio, Debagoieneko Mankomunitatearekin urteak daramatzazkigu gure hiri hondakinak bildu eta Sasietako zabortegira jaurtitzen, eta ondorioz gure hondakinek eragiten dituzten kalteak gure bizilagunek pairatzen dituzte. Eta hori ez da zuzena. Ez da zuzena ere, birziklatzeko saioa guztiak baztertu eta gure hondakinak erraustera bidaltzeko asmoa, arazo bati arazo handiago batekin erantzutea arriskutsua izateaz gain antzua baita

Oñatiarrok arazo bat dugu hondakinekin. Urteak daramatzagu edukiontzien sistemarekin birziklatzeko asmotan, baina urratsak eman baditugu ere, sistema ahitua dago. Gaur egungo gure birziklatze maila ez da %30era iristen, %90 birziklagarria denean. Denok birziklatzen dugula esaten dugu baina datuak gordinak dira, hondakinen %70 baino gehiago zabortegietara botatzen ari gara. Ez dugu organiko gramo bakar bat ere biltzen modu berezitan. Eta errealitatea are gordinagoa da: gaur egun papera, beira, ontziak eta organikoa nahastuta botatzen ari gara, balio handia duten eta lehengai diren hondakinak zabor kutsatzaile bihurtzen ari gara eta hori onartezina da.

Arazoa dugu bai, baina konponbidea ere bai. Guk Gipuzkoa garbia nahi dugu, Oñatiko airea, mendiak eta errekek garbi nahi ditugu. Horregatik, eta Oñatin gauzak ongi egiten dakigulako arazoari muinetik helduko diogu.

Oñatiarrok hondakinen murrizketari, berrerabiltzeari eta birziklatzeari ekingo diogu. Oñatin gauzak ongi egiten ditugulako zero zabor politikarantz abiatuko gara, pausu txiki batekin emaitza ezin hobeagoak lortuko ditugu.


Hau nola, udalbatzak zera onartzen du:

- 1.- Oñatiko udalak ahalik eta hondakin gutxien sortzeko azterketa abiatuko du Debagoieneko Mankomunitatearekin.
- 2.- Oñatiko udalak Mankomunitatearekin batera adostuko du konpostatze kanpaina zabala egitea herriko familien artean.
- 3.- Oñatiko udalak ahalik eta gehien birziklatze aldera, emaitza onenak lortzen dituen hiri hondakinen bilketaren alde egiteko konpromezua hartzen du, eta %80ko birziklatze maila lortzen ari den sistema bakarra atez ateko bilketa da gaur egun.

4.- Udalak etengabeko urratsak emango ditu Oñati zero zabor lurraldea bihurtzeko bidean.

5.- Hau guztia burutzeko, Debagoieneko Mankomunitatearekin lan-batzorde bat osatzeko eskaera egingo du.

Oñatin, 2012ko Martxoaren 22an

A handwritten signature in black ink, consisting of several overlapping loops and a long horizontal stroke extending to the right.